


- **Kanalak:**
- **Komunikazio kanalak:** Alde batetik, bezeroekin komunikatzeko bide nagusia sare sozialak izango dira. Izan ere, gaur egun, sare sozialen eragina ikaragarri handia da eta ideia ona iruditu zaigu segmentu desberdinetako jendearen atentzioa erakartzeko. Facebook, Instagram, YouTube... eta beste hainbat sarerekin kontaktuan jartzea lortu dugu, gure iragarkia ikusgai izan dadin pertsona guztientzat. Bideoaren iraupena 20 segundu ingurukoa izango da gutxi gorabehera. Iragarkiak 2-3 hilabete iraungo du sareetan, jendeak gure dutxak ondo ezagutu arte, baita gure proiektu berritzailearen berri jaso dezaten ere. Hala ere, kontu desberdinak sortuko ditugu sare sozial horietan gure enpresaren izenarekin. Horrela, gure bezeroak etorkizunera begira gure produktu berriak ezagutu ditzaten. Gainera, dutxaren produkzioan, denboraren poderioz, abantaila ugari azalduko ditugu, beraiek ikus ditzaten. Bestetik, telebistan nolabaiteko eragina izaten saiatuko gara, bereziki Espainiako Mediaset kateetan (Telecinco, Cuatro, FDF...). Iragarkia arratsaldeetan eta gauetan jarriko da telebistan, horrek arrazoi estrategiko bat du: adineko edo desgaitasuna duten pertsonak gauetan haien etxera iristean oso nekatuta eta estresatuta aurkituko direnez, gure dutxa erosteko probabilitatea handiagoa izango dela kalkulatu egin dugu.



- **Banaketa kanalak:** Gure bezeroen erosotasuna eta ezgaitasunak kontuan hartuz, haien bizitza erraztea eta hobetzea da gure helburua. Horregatik, gure langile batzuk, ez bakarria, joango dira bezero horren etxera dutxa jartzeko. Gure enpresan hainbat langile dauzkagu, lanbide ezberdinekoak: iturginak, arkitektoak, ingeniariak, masajistak eta baita erizainak ere. Hainbat mota desberdineko langileak izatea abantail asko ematen digu beste enpresekin alderatuz. Kamioiez eramango dira lehengaiak eta etxean bertan produktu bukatuak bihurtuko dituzte gure langileek. Oraintxe bertan hiru egun behar ditugu horrelako dutxak eraikitzeke. Lehenengo egunean, gure arkitektoak etxearen eraikuntza ikusiko du eta proiektuarekin aurrera jarraitu ala ez zehaztean, beste hainbat langile hasiko dira dutxaren eraikuntzarekin. Gure enpresak 100 kamioi baino gehiago ditu eta oraingoz 150 gidari ditugu. Gure lehengaien kalitateari dagokionez, oso kalitate altuko lehengaiak ditugu. Hainbat enpresekin harreman handiak izateaz gain, IKEA, LEROYMERLIN eta horrelako beste hainbat dendetan saltzen dira gure produktuak. Amaitzeko, esan beharra dago telekomunikazio operadoreak astelehenetatik igandetarara arte 24 orduz daudela zerbitzuan. Gure dutxen kalitateaz gain, 6 urteko ziurtagaia du eta kuota zabaletan ordaindu daiteke. Animatu eta bat hartu!